## IRUCHULOTAR JATORRA

Iruchulotar seme jatorra
Serafin Baroja zarra,
naiz españetan alai eduki
gazteri tankeraz farra,
opaturikan asarre ordez,
pozaren griña bakarra,
chuliatzalle gordin gordiña,
iskribazalle azkarra
motel zegona piskortutzeko
berez ernari s̄amarra,
¡tristeturikan aitortutzen det
orlako donostiarra,
kupitasuna dala mundutik
betiko galdu biarra!...

JOSÉ GAMBOA

* * *

## MALKO BAT

¿Zer esatia nai dezute nik
on Serafin zana gatik?
. . . . . . . . . . . . . . . . .
¡Danak negarrez, emen utzi ta
joan dala mundu ontatik!
Erregu zagun, biotz biotzez
lagun guziyak baturik,
Euskal-erriyaz oroitutzia
guk nai badegu bestetik.

JOSÉ GALDÓS